

2. UGALKETA

1. Adierazi gizonezkoen edo emakumezkoen ugaltze aparatuen zein atali dagokion esaldi bakoitza:

- a. Testosterona sintetizatzen du.
- b. Espermatozoideak emakumezkoen baginaren barrura sartzen ditu.
- c. Obuluak sortzen ditu.
- d. Espermatozoideak elikatzeko jariagaia jariatzen du.
- e. Glandea babesten du.
- f. Luzeak dira eta epididimo bakoitza eta uretra lotzen dituzte.
- g. Izaki berria barnean hartzen duen egitura.
- h. Espermatozoideak heltzen dira bertan.
- i. Obulutegia eta umetokia lotzen dituzten hodiak.
- j. Espermatozoideak babesten dituen substantzia jariatzen du.
- k. Organo kopulatzailea, erditzean fetua kanpora ateratzeko bidea.

2. Osatu taula hau:

EGITURAK	GIZONA	EMAKUMEA
GAMETOAK		
GONADAK		
UGALTZE-BIDEAK		
ORGANO KOPULATZAILEAK		
GURUIN ERANTSIAK		

3. Lotu espermatogenesiaren fasearen izenak prozesuarekin

ESPERMATOGENESIA	- Espermatozitoak zatitu eta espermatidak sortzen dira.
UGARITZEA	- Espermatozoideak sortzeko prozesua da.
HAZKUNTZA	- Espermatidak formaz aldatu eta espermatozoideen itxura hartu.
HELTZEA	- Tubulu seminiferoetan espermatogonioak sortzen dira.
BEREIZKETA	- Espermatogonioak hazi eta espermatozito bihurtu.

4. Ordenatu obuluen sorreraren faseak

OBOGENESIA: obulutegian obuluak sortzeko prozesua da.	1.
OBULAZIOA: Folikulu heldua apurtu, obulua askatu eta obulutegitik irten.	2.
GORPUTZ HORI EDO LUTEOA: ernalketarik EZ badago, degeneratu. Ernalketa BAI, hazi eta haurdunaldia kontrolatzen duen hormona sortu.	3.
FOLIKULU HELDUA: handia da eta folikulu sekundarioa du barnean.	4.
FOLIKULU PRIMARIOA: oso txikia eta heldugabea, obozito primarioa du barnean.	5.